



LAUDIO IBAR NOBLEAREN UDALA

AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE
DE LLODIO

2009 / 7 AKTA

ACTA 7 / 2009

Bilera: Ez ohiko Osoko Batzarra.
Eguna: 2009-07-20
Ordua: 09:00 – 10:10
Tokia: Herriko Etxeko Bilkura Areto nagusia.

Sesión: Extraordinaria de Pleno
Día: 20-07-2009
Hora: 09:00 – 10:10
Lugar: Salón Sesiones Municipal.

Bertaratuak:

Jon Karla Menoio Llano, Alkatea.
 Juan José Unzaga Bilbao, EAJko zinegotzia.
 Leire Orueta Bergara, EAJko zinegotzia.
 María Izaskun Arregi Zubiaur, EAJko zinegotzia.
 Izaskun Miñano Larrea, EAJko zinegotzia.
 Pedro María Isusi Camino, EAJko zinegotzia.
 Juan Antonio Bilbao Gallastegi, EAJko zinegotzia.
 Txaro Sarasua Díaz, PSE-EEko zinegotzia.
 Juan Ángel Gomez Calero, PSE-EEko zinegotzia.
 Paqui Macias Gonzalez, PSE-EEko zinegotzia.
 Carlos De Urquijo Valdivielso, PPko zinegotzia.
 Peli Ortiz de Zarate Constenla, Atxiki Gabeko Kidea.
 Gaizka Amorrortu Bobeda, Atxiki Gabeko Kidea.
 Ziortza Uriarte Bilbao, Atxiki Gabeko Kidea.
 Josu Zabala Atxa, Atxiki Gabeko Kidea.

Asistentes:

Jon Karla Menoio Llano, Alcalde.
 Juan José Unzaga Bilbao, concejal de PNV.
 Leire Orueta Bergara, concejal de PNV.
 María Izaskun Arregi Zubiaur, concejal de PNV.
 Izaskun Miñano Larrea, concejal de PNV.
 Pedro María Isusi Camino, concejal de PNV.
 Juan Antonio Bilbao Gallastegi, concejal de PNV.
 Txaro Sarasua Díaz, concejal del PSE-EE.
 Juan Ángel Gomez Calero, concejal del PSE-EE.
 Paqui Macías González, concejal del PSE-EE.
 Carlos De Urquijo Valdivielso, concejal del PP.
 Peli Ortiz de Zarate Constenla, Miembro No Adscrito.
 Gaizka Amorrortu Bobeda, Miembro No Adscrito.
 Ziortza Uriarte Bilbao, Miembro No Adscrito.
 Josu Zabala Atxa, Miembro No Adscrito.

Bertaratu ez direnak:

Rosa Torres Corres, PPko zinegotzia.
 Oihana Gomara Pikaza, Atxiki Gabeko Kidea.

No asisten:

Rosa Torres Corres, concejal del PP.
 Oihana Gomara Pikaza, Miembro No Adscrito.

Arantza Lili Salazar, Idazkaria.

Arantza Lili Salazar, Secretaria.

Segituan eta Udal Buruaren aginduz, eguneko gaien zerrendan sartutako gaiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, honako erabaki hauexek hartu ziren:

A continuación y de orden de la Presidencia se procedió al estudio y debate de los asuntos incluidos en el Orden del Día, adoptándose los siguientes acuerdos:

44.- 2009RAKO AURREKONTU OROKORRA ETA PERTSONAL PLAZEN PLANTILAK.- ALKATETZAREN PROPOSAMENA OGASUN ETA ONDAREA ARLOKO ZINEGOTZI ORDEZKARIAREN BITARTEZ, ALDEZ AURRETIKO OGASUN ETA ONDAREA ETA FUNTZIO PUBLIKOA ETA LAN HAREMANETARAKO ARLOETAKO BATZORDE INFOMATIBOAREN EBAZPENAZ.- ONARTUA



1.- 2009 ekitaldirako Aurrekontuak betearazteko Udal Arauarekin batera, Udaleko eta Udal Euskaltegi Erakunde Autonomiaduneko Aurrekontu proiektuak osatzen duten 2009 ekitaldirako Aurrekontu Orokorren Proiektua aztertutik, ikus genezake honako hauxe:

1.1.- Korporazioen ardurapean dauden zerbitzuen ohiko funtzionamendua lagunduko duten beharrezko gastu maileguak, hauen aurrekontuak beste hartan sartzen direlarik, eta ekitaldian zehar kitatzeko diru sarreraren zentzuzko eta arrazoizko aurreikuspenak dauzkala.

1.2.- Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorritik Aurrekontuak betearazteko Udal Arauak aurrekontu barruko kudeaketa egokirako beharrezko xedapenak dauzka bere barruan.

1.3.- Aurrekontu Proiektuak ez du hasierako defizitirik.

2. Bestalde, Korporazio bakoitzak onartu behar ditu urtero Aurrekontuaren bitartez, funtzionario, lan itunpeko langile eta aldi baterakoentzat gordeta dauden lanpostuen plantilak, eta, gainera, ondorengo oinarritzako arauetan batuta dauden ezarpeneko xedapenetan agertzen den bezala egin behar da; indarrean dagoen Funtzio Publikoa aldatzeko Neurrien Legea; Apirilaren 2ko Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen 7/85 Legeko 90. artikulua; Apirilaren 18ko 781/86 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Toki Araubideari buruzko Testu Bategineko 126. eta 127. artikulua; eta ekainaren 6ko Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeko 20. artikuluan.

Funtzio Publikoa eta Lan Harreman Arloko Buruak prestatu dituen 09-06-05 eta 09-06-15ko B-09-132 eta B-09-139 erreferentzia duten txostenak aztertu ditugu, Laudio Udaletxeko eta Udal Euskaltegiko 2009rako aurrekontuko Plantillari buruzkoak, espedientean jasota daudenak.

09-07-06ko Udal Kontuhartzailearen txostena aztertuta.

Arestian azalduko guztiagatik, Ogasun eta Ondare Arloko Goi Mailako Teknikariaren eta Alkatetzaren proposamenaz, Ogasun eta Ondare Arloko Zinegotzi Eskuorde Laguntzailearen bitartez, Ogasun eta Ondare eta Funtzio Publiko eta Lan Harreman Arloetako Batzorde Informatibo eta Jarraipen Batzordearen alde aurretiko irizpenaz, Udalbatzarreko Osoko Bilkurak,

ERABAKI DU:

LEHENA.- Gailentzea Udal Kontu Hartzailtzak formulatu dituen eragozpenak, zenbateko bakarrean eta 2008 urtean zerbitzu denboraren proportzioan ordaintzeko, ordainsari finko eta aldiroko guztien gaineko % 2,5 ordaintzeko proposamenari buruz, zein egokitzen baita ITZARRI-BGA Eri Eusko Jaurlaritzak 2008 urtean bere enplegatu guztiengatik egin zuen emariarekin, izan ere emari hori egin behar beharko bailitzateke erretiroaren kontinjentzia barne hartzen duten aseguru kolektiboko kontratuetara edo pentsio planetara, beti ere, oinarria harturik Lanbide Heziketako Udal Ikastetxeko irakasleek aitortuta daukatela EA Eko Unibertsitatez kanpoko irakaskuntza publikoko irakasleekiko ordainsarien eta lan baldintzen homologazioa eta Udalak ezin duela ITZARRI-BGA Era ekarpenik egin LHUIko irakasleengatik eta LHUIko Langileen Batzordearekin lortutako akordioarekin bat.

BIGARRENA.- Onartzea, hasierako izaeraz, 2009ko Aurrekontu Orokorra, proiektatua izan den forman, Udal Aurrekontua eta Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoarenaz osatuta dagoena. Kapituluka laburtutua hauxe da:



A) UDALETXEKO UDAL AURREKONTUA

2009

GASTUAK

KAP.	IZENDAPENA	EURO
1	LANGILE GASTUAK	12.671.476,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	8.269.037,54
3	FINANTZA-GASTUAK	7.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.607.256,27
	SARRERA ARRUNTA GUZTIRA	22.555.269,81
6	BENETAKO INBERTSIOAK	100.570,78
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	40.000,00
9	FINANTZA-PASIBOAK.	0,00
	GUZTIRA KAPITAL GASTUA	140.570,78
	GASTUAK GUZTIRA	22.695.840,59

2009

SARRERAK

KAP.	IZENDAPENA	EURO
1	ZERGA ZUZENAK	4.458.947,56
2	ZERGA ZEHARKAKOAK	300.000,00
3	TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERAK	2.824.444,70
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	14.256.818,72
5	ONDARETIKO DIRU-SARRERAK	815.629,61
	SARRERA ARRUNTA GUZTIRA	22.655.840,59
6	BENETAKO INBERTSIOEN BESTERENTZEA	0,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	40.000,00
9	FINANTZA-PASIBOAK.	0,00
	GUZTIRA KAPITAL SARRERAK	40.000,00
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA:	22.695.840,59

B) UDAL EUSKALTEGIA ERAKUNDE AUTONOMOKO AURREKONTUA

2009

GASTUAK

KAP.	IZENDAPENA	EURO
1	LANGILE GASTUAK	604.131,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	18.407,00
3	FINANTZA-GASTUAK	0,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	0,00
	SARRERA ARRUNTA GUZTIRA	622.538,00
6	BENETAKO INBERTSIOAK	0,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00
9	FINANTZA-PASIBOAK.	0,00
	GUZTIRA KAPITAL GASTUA	0,00
	GASTUAK GUZTIRA	622.538,00

2009SARRERAK

KAP.	IZENDAPENA	EURO
1	ZERGA ZUZENAK	0,00
2	ZERGA ZEHARKAKOAK	0,00
3	TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERAK	58.300,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	563.688,00
5	ONDARETIKO DIRU-SARRERAK	550,00
	SARRERA ARRUNTA GUZTIRA	622.538,00
6	BENETAKO INBERTSIOEN BESTERENTZEA	0,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	0,00
9	FINANTZA-PASIBOAK.	0,00
	GUZTIRA KAPITAL SARRERAK	0,00
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA:	622.538,00

C) AURREKONTU OROKOR KONTOLIDATUA2009GASTUAK

KAP.	IZENDAPENA	EURO
1	LANGILE GASTUAK	13.275.607,00
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ET A ZERBITZUETAN	8.287.444,54
3	FINANTZA-GASTUAK	7.500,00
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.423.260,78
	SARRERA ARRUNTA GUZTIRA	22.993.812,32
6	BENETAKO INBERTSIOAK	100.570,78
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	40.000,00
9	FINANTZA-PASIBOAK.	0,00
	GUZTIRA KAPITAL GASTUA	140.570,78
	GASTUAK GUZTIRA	23.134.383,10

2009SARRERAK

KAP.	IZENDAPENA	EURO
1	ZERGA ZUZENAK	4.458.947,56
2	ZERGA ZEHARKAKOAK	300.000,00
3	TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERAK	2.882.744,70
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	14.636.511,23
5	ONDARETIKO DIRU-SARRERAK	816.179,61
	SARRERA ARRUNTA GUZTIRA	23.094.383,10
6	BENETAKO INBERTSIOEN BESTERENTZEA	0,00
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	0,00
8	FINANTZA-AKTIBOAK	40.000,00
9	FINANTZA-PASIBOAK.	0
	GUZTIRA KAPITAL SARRERAK	40.000,00
	DIRU-SARRERAK GUZTIRA:	23.134.383,10



HIRUGARRENA.- Onartzea 2009 ekitaldirako Udal Aurrekontua Betearazteko Udal Araua, erredaktatua izan den forman.

LAUGARRENA.- Onartzea apirilaren 2ko 7/85 Legeko 90. artikuluan, apirilaren 18ko 781/86 Legegintzazko Errege Dekretuko 126. eta 127. artikuluetan eta uztailearen 6ko Euskal Funtzio Publikoko 6/89 Legeko 20. artikuluan xedatutakoarekin batera, honako hauek:

A) 2009rako Laudioko Udaleko karrerako funtzionario, Lan-Legepeko Langile finko eta aldi baterakoen Plantila, proposamen honekin batera doan dokumentuaren arabera eta 1. zenbakia duen eranskinari dagokiona.

B) 2009rako Udal Euskategiko Karrerako Funtzionario eta Lan-Legepeko Langileen Plantila, proposamen honekin batera doan dokumentuaren arabera eta 2 zenbakia duen eranskinari dagokiona.

BOSGARRENA.- Erabaki honek ekonomiazko eragin eta ondorioz indarra hartuko du 2009ko urtarilaren 1etik hasita, behin 2009ko Aurrekontuak betearazteko izaera hartu ondoren.

SEIGARRENA.- Orain hala onartutako Aurrekontu Orokorra, Udal Aurrekontua Betearazteko Udal Araua eta Langile Plazen Plantilen iragarkia ALHAOean eta Udaletxeko Iragarkien Taulan argitaratzea, eta iragarkia hori azaldu ondoren, jende aurrean erakutsiko dira 15 lan egunez, Osoko Bilkurari erreklamazioen ondorioetarako.

ZAZPIGARRENA.- Hasierako izaera duen honako onarpen erabakia, behin betiko onartutzat joko da jendaurreko erakusketa aldi zehar erreklamaziorik ez bada aurkezten eta indarra hartuko du Arabako Lurralde Historikoaren Toki Erakundeetako Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauko 16. artikuluan erabakitakoa bete ondoren. Erreklamaziorik badago, Osokoak hilabeteko epea izango du horiek ebazteko.

LEIRE ORUETA BERGARA (Gaztelaniaz).- 2009 urterako Udal Aurrekontuaren azalpen laburra egingo dut. Baina, hasi baino lehen, gustatuko litzaidake eskerrak ematea aurrekontua prestatzeko orduan parte hartu duten teknikari eta zinegotzi guztiei. Izatez, lan erraz bat ez bada ere, aurrean erabakia izan du erraz hori.

Azalduko dut apur bat zein den Udalaren egoera. Denok dakizue, bagaude sartuta oso krisi sakonean, zeinarekin guk zerikusirik badugun, nahi izan ala ez eta, beraz, islatuta ikusi da hori aurtengo Aurrekontuan. Nahi dut argi utzi aurtengo diru-sarrera bilketaren jaitziera garrantzitsua izan dela, izan ere aurreko ekitaldiarekiko 3.228.705 euro gutxiago ditugun sarreretan. Hori, berez, ez da ona Udal honetarako. Sarrera gutxiago izate hori, gehien batean eraginda dago FOFEL kontzeptuan Aldundiaren aldetik jasan dugun gutxitzeagatik, zein izan baita pasa den urtearekiko, iazkoarekiko, 1.439.000 euro gutxiagokoa. Eta horri, gainera, gehitu behar diogu aurtengo 2009 urtean egin behar izan dugun diru bueltatzea, 2008 urtetik zegoigun zatitik, 625.000 euroko zenbatekora iritsi dena. Horrekin, diru sarrera jaitzi den 3.228.705 euroetatik, soilik FOFEL kontzeptuan badira 2.065.000 euro. Jaitzierako gainerakoa badator eraikuntza lizentzietatik, sektoreko krisiagatik eraginda, nekazaritza eta basozaintzako ustiapenetatik, lehenago aipatutako arrazoi berdinagatik eta kontu-deposituen korrituengatik, izan ere, kontu-depositu horien korrituak oso baxu daudenez, etekinek ere behera egiten digute aldi berean.

Sarreraren analisiaren ostean, esan nahi dugu gastuen kapituluan islatu egin ditugula Udalak aurre egin behar dien konpromiso guztiak, ahaztu barik gastu arruntaren euspena, aurrean 786.291 eurotan gutxiarazi egin dugula.



Nabarmentzea gizarte laguntzako diru-laguntza partidak hedatu egin direla 100.000 euroraino, krisi egoera honetan dauden txarren pasatzen ari diren pertsonen eskariei aurre egin ahal izateko. Aurreko hori guztia esanda, azalpena amaitzeko inbertsioei buruz hitz egitea geratzen zaigu. Horretarako aurrekontuaren azalpeneko zati legez sartu egingo dut Gai Zerrendako 2. Puntua, hots, kredituak aldatzeko espedientea.

Urte honetarako Udaleko aurrekontu nagusiaren inbertsio gaitasuna minimoa denez, planteatzen dugu aldi berean kredituak aldatzeko espedientea, aurrekontu honetan sartu ezin diren inbertsio horiek guztiak sartzeko. Horiek zehaztera pasako natzaizue. Aurrekontuan aurten inbertitzeko geratzen zaigun zenbatekoa 96.000 € dira eta erabakitzeko orduan zein inbertsiori heldu, sartu eta txertatu nahi izan ditugu zenbateko eta munta txikiko auzokoen eskariak, hala nola, adibidez, Zuberoa kaleko haurren jolas parkearen eraberritze integrala, Landaluze urbanizazioko bidearen konponketa, era horretan garajeetan dituzten uren iragaziak saihesteko, Gardeagotxirako bidea konpontzea eta zati txiki bat Gardeako Santa Gurutze Baselizako teilatu konpontzea finantzatzeko, izan ere, finantzaketaren gainerakoa kreditua aldatzeko espedientearen jasota baitago. Espedientearen proposatzen ditugun inbertsioei dagokienez, esatea 416.612,67 euroraino iritsi direla eta ondoren zehazten ditugunak dira.

Planteatzen dugu Hornidura Plaza eraberritzeko proiektuaren erredakzioa, Santa Luzia baseliza konpontzea. Fabian Legorburu Eskolan planteatu dira inbertsio legez urbanizazio berritik oinezkoentzako irispidea egitea, auzokoei eskatzen diguten legez, gimnasilekua atontzea bihurtzeko areto balio anitz batean, komunak konpontzea, bai eta terrazetako batean dauden filtrazio eta ur iragazien arazoak ere. Latorro Eskolan hainbat inbertsio planteatzen dira, hala nola diren eskolarako irispideak konpontzea, hala eskatu baitute baita irakasleek eta auzokoei ere, eskolazainaren etxean gasaren instalazioa eta instalazio elektrikoa berritzea eraikinetako batean, badituztelako batzuek beste 30 urte. Azken batean, horixe da 2009 urteko aurrekonturako planteatzen dugun dokumentua.

CARLOS URQUIJO VALDIVIELSO (Gaztelaniaz).- Eskerrik asko eta laburpen handiz, talde popularraren boskaren zentzua azaltzeko. Gu abstenitu egingo gara aurkeztu egin den proiektuarekiko. Ogasuneko zinegotziak esan duen legez, bada aurrekontu bat baldintzatuta datorrena krisi orokorreko egoeratik, esan den legez ere Laudio ezin daitekeela at senti. Sarreraren eta diru-laguntzen jaitziera nabarmena da eta, beraz, bagaude krisi egoerako aurrekontu baten aurrean, miloi erdi eurora ere iristen ez diren inbertsio oso mugatu batzuekin eta eragiten dutela, gainera, uztailan onartzen bada, urrutetik hamalau, bertaratu eta lau. Beraz, ez luke zentzu handirik ere izango aurka jartzea, kontu-hartzailetzako eragozpenak badauden arren langileei emariren batekiko erlazioan, baina guk uste egin behar dena badela erraztea “gerrako aurrekontu” honen barruan ekin ahal daitezen, behintzat, Laudio herriak behar dituen inbertsioetako batzuk. Jaso da bertan talde popularrak planteaturiko iradokizunen bat, Hornidura Plazarako proiektuaren erredakzioarena kasurako, eta arrazoi horregatik eta jarreratik, hau da, jarrera onagatik ala gehiengo osoa ez duen gobernu talde baten jarrera propioagatik. Eta eskerrak eman nahi genizkieke beste taldeen iradokizunetara ere zabaldua egon delako eta arrazoi horiengatik gure bozketa abstentzioa izango da, nolabait, aurrekontuaren onarpena ez eragoztearren.

GAIZKA AMORRORTU BOBEDA (Euskaraz).- Lehenengotan eta beste urteetan bezala, aipatu nahi genuke Osoko Bilkura hau oso berandu egiten ari garela, txostenak dioen bezala Aurre-kontu hau indarrean urte honetako urtarilaren leian egon beharko luke eta hementxe gabiltza uztailearen bukaeran eztabaidatzen onartu behar den ala ez. Gainera, kontutan izanda krisi egoera baten gaudela, are larriagoa iruditzen zaigu. Beste alde batetik, oso gaizki iruditzen zaigu Aurre-kontu hau Ez Ohiko Bilkura baten eztabaidatzea, onartzea edo ez onartzea. Aste bete bakarrik irabazi diogu Ohiko Osoko Bilkurari eta era honetan zenbait zinegotziri parte hartzeko aukera ukatu egin zaie, parte hartzeko beraien eskubidea ukatu egin zaie, zorabiatu egin gaituzue aurreko hilabeteen joango zen, ez zen joango, Lan Hitzarmenarekin batera, eta azkenean aste bete aurreratu eta batzuei haien eskubidea ukatu diezue horren gauza garrantzitsuan, azkenean udaletxe baten gauzarik garrantzitsuenetarikoa dela esan genezake aurrekontua.



Gero bestetik, Gobernu Taldeari eskerrak eman nahi genizkioke gu negoziatzera gonbidatu ez gaituztelako inongo momentuetan, gu aintzat hartu ez gaituztelako inongo momentuetan aurrekontu hauek negoziatzeko orduan. Guretzat honek esan nahi argia dauka, eta bada gobernu taldearen etorkizun proiektua ez dagoela Euskal Herrian, ez dagoela nazio eraikuntza, eta ez dagoela Laudio herri honen gehiengoaren asmoen barruan, asmo abertzale batzuen asmoan. Zuen proiektua ez dakit Espainia izango den ala zuen sakelak, baina argi dagona ez dela nazio eraikuntza eta ez dela Euskal Herria, bidaiarako aukeratzen dituzuen lagunak ikusita.

Aurrekontuekin zehatzago sartuta, gu aspaldi eta mozio bat aurkeztu genuen aipatzen finantziario arazoa eta fiskalitatearen arazoa. Krisia egon badago, baina baita ere jada dirurik ez dagoela, jendeari eta gehien kobratzen dutenei kobratzen ez zaielako. Dagokigun herri hau da Europan edo gure betiko Europa honetan ez CEEn sartu diren herri berriak kontutan izan barik, baina bada fiskalitate presio txikiena daukan herria, eta horrela doakigu. Gero eta diru gutxiago dago, dirua pasa den urtetik hona murriztu egin da eta hurrengo urterako gehiago gutxituko da. Aurtengo lehenengo bost hilabeteetan bildutako dirua %17 jaitsi da 2008arekin konparatuta. Beraz, gure ustez moldearen arazo bat da eta hemen talde guztiek bat egin duzue. Lotsagarri izan zen beste egunean Zapatero ikustea zelan poz-pozik aipatzen zuen zelan zergak jaitsi eta jaitsi egiten dizkieten enpresariei. Ondarearen Gainera Zerga desagertarazi egin duten, Elkarteen Gainera Zergak zelan gutxitu egiten duzuen guztiok, eta horrela doakigu. Batetik enpresari eta banketxei diru eskukadak eman eta bestetik, gutxien dutenei zuzenekoak ez diren zergak igo. Beraz, uste dugu finantziaketa moldea aldatzen ez den bitartean, ez dela konponbiderik izango.

Gero bestetik, uste dugu azkenean aurrekontu honek daukan gauza bakarra da, gastu korrontea mantentzen duela, makina handi hau martxan mantentzen du besterik gabe, baina ez dago inbertsiorik, ez dago dirurik horretarako, ez dago etorkizun proiekturik. Gainera, aipatu behar genuke inbertsio bezala aipatutako gauza asko, berez, ez direla inbertsioak, gastu korrontek direla. Azkenean Azoka, Udal merkatu azoka bat izatea, legez gure bete beharren artean dago, ikastetxeen konponketa eta mantenua Udaletxearen betebeharren artean dago, eta abar eta abar. Beraz, herriarentzako inbertsio, herriarentzako etorkizun proiekturik ez dugu ikusten aurrekontu hauetan.

Baita ere aipatu nahi genuke, azken denbora hauetan udaletxeak zituen diru gordekinak desagertzen doazela, behera doaz etengabe, azkar gainera eta ez dira ere inolako etorkizun proiektu baten inbertitu, baizik eta gastu korrontean joan zaizkigula. Honek gure kezka areagotu egiten du etorkizunari begira.

Bestetik, iragan Osoko Bilkuran onartu egin zen Eusko Jaurlaritzak gomendatu bezala, euskarari aurrekontuaren %2a eman behar zitzaioela, eta aurrekontu honek ez du hori betetzen eta ez du bide hori ere jarraitzen. Beraz, berriro ere agertzen da argi, zeintzuk diren bakoitzaren kezkak. Eta bestetik, beste taldeek aipatutako aldaketak, uste dugu azkenean ez dutela ia ia garrantzirik aurrekontuan eta batzuk adibidez merkatu azokarena bezala, harrigarria iruditzen zaigu batzarretan eta beste proposamen batzuk zeudenean mahai gainean, beste leku batzutan egitea, eta beste era baten egitea. Beraz, eta bukatzeko, gure proposamenak hasieran gobernu taldeari agertutakoak izaten jarraitzen dute. Uste dugu aurreztu egin behar dela, uste dugu gastu korrontea jaitsi behar dela, uste dugu gastu korronte horren zama handi bat pribatizazioak direla, esku publikoetatik pribatuetara doan diru horretan, diru hori zama handia dela udaletxearentzat eta behin aurreztuta eta jakinda herri honentzako zer nahi dugun zorpetu behar baldin badugu, zorpetu beharko genuke. Baina jakinda zer nahi dugun eta zer nolako herria nahi dugun.

TXARO SARASUA DIAZ (Gaztelaniaz).- Eskerrak eman nahi nizkion Amorrortu jaunari geure nortasuna gogorarazteagati eta ez genekielako gure ekarpenak hutsalak zirenik, gehiagorik ez; eskerririk asko.



Aurrekontuen mamian sartuta, guk gogorarazi nahi genukeen gauza da nola otsaileko Osokoa jada esan genuela otsailaren 9ko 03/2004 Foru Arauak xedatzen zuena, zeinaren arabera Toki Erakundeetako aurrekontuak urriaren 15a baino lehen aurkeztu behar baitira.

Egia esan, aurten beste behin ere, aurkezten direla berriro aurrekontuan onarteko uztaila hilabetean eta alderdi sozialistatik nahi diogu gogorarazi gobernu taldeari ezen hori ez dela praktika ona, zeren ia maniobra marjina oso eskasa geratzen baita urte bukaerara arte, aurrekontu ekitaldiaren egoera aurreratua jada oso aurreratuta dagoela-eta. Gobernu taldeak aurkeztu zigun apirilko hilabetean 2009ko aurrekontuen aurre-proiektua, iragarritz oinarri-oinarrian laztasun- eta zorrotasun-irizpidea eta funtzionamentu gastuetan murrizketak eginez, Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtسات, Fofel-etik, zetozen diru-sarreraren gutxitzen nabarmenagatik, batz bestea, % 13 eta Obra eta Eraikuntzan gaineko Zergaren, hau da, ICO delakoaren, % 67 batean diru-sarreraren jeitsieragatik. Sozialistok deritzogu jasaten ari garen krisi globaleko egungo egoeraren aurrean, gure alderdiaren lehentasuna oposizioetik izan behar duela herritarrekiko elkartasunaren alde laguntzea eta oinarri horretatik abiatuta, aurkeztu egin ditugu geure emendakinak koherentziaz, erantzukizunez eta oposizio eraikitzaile batetik auzolanean aritzeko asmoz.

Martxoa hilabeteko Osoko Bilkuran zehaztu genituen jada zeintzuk ziren alderdi sozialistaren ikuspegitik kontuan hartu behar ziren irizpideak. Funtsean, baziren bost eta bazetzaten udalaren jarduna dinamizaraziko zuten neurriak hartu behar zirela, krisiagatik udaletxeko diru-sarreraren jaitsieraren aurrean udaletxe honek prestatzen dituen zerbitzuak bermatzea ahalbidertu ahal izateko. Berrikus daitezela udal zerbitzuetako kontratuak, bizi dugun egungo egoerarekin bateratsu baldintzarik abantailatsuenak bilatzeko, gure udaletxearen funtzionamendu gastuak ahal denik gutxienera murriz daitezela eta goi kargudun eta zinegotzien soldatak izoztea. Mantentzea jarduera ekonomikoan inbertsio sortzailea, nahiz horretarako beharrezkoa izan zorpetzea edo altxortegiko gerakinari heltzea eta sortzea herriko enplegu poltsa berri bat langabeziaren aurka borrokatzeko.

Aurkeztutako eta onartutako emendakinak hauek dira: lehenik, goi kargudunen soldatak izoztea, hala nola bileretara joateagatik gainerako zinegotzientzako dietak ere. Udalbide Elkarlan Elkarte partida, 15.000 €ko kontsignazioa zuena ezabatzea. Parke eta lorategien mantentze-lanen kontratazioaren esternalizazioa. Egia esan, gai honek bere denbora eraman digu; hasiera batean 212.581,60 €tan presupuestatuta zegoen eta eskatu genuen zenbateko hori beheratzea 120.000 €raino, baina gure herrian azken urteotan sortutako beharrian berrietan oinarritutako txostena erredaktatu zuen teknikariaren azalpenak entzun ostean, onartu egin dugu beherapena 185.000 €raino. Gainera, Alderdi Sozialistak deritzo on litzatekeela udalak lehenestea irizpide sozialez arautzen diren enpresen kontratazioa, hau da, iraupen luzeko langabeen kontratazioa lehenetsi dadila, langabezia agortu duten langabeak, 45 urtez gorakoak, minusbaliatuak, kolektiborik ahulenak, e.a.

Aurrekontuan, emakume eta gizonen aukera berdintasunaren gaian aurreikusita dago partida multzo bat, guztira 95.000 € egiten dutenak, ondoren zehaztera pasako natzaizuen: prestakuntza eta enplegurako 2.000 €; udalerriko emakumearen ahalduntzea sustatzeko 12.000 €; Emakumearen Nazioarteko Eguna 12.000 €; homofobiaren aurkako borroka 6.000 €; eskola zentroetan GPS proiektua 12.000 €; Emakumeenganako Indarkeriarik Ezaren Nazioarteko Eguna 8.000 €; zinema eta emakumea zikloa 6.000 €; bigarren hezkuntzako ikasleentzako emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa eta aurrezaintza 10.000 €; 6-7 urte bitarteko haurrentzako heziketa kanpaina ez 6.000 €; eta hiriko puntu beltzen maparen proiektua 21.000 €. Horrek egiten du guztira 95.000 € eta, hala ere, bazegoen aurreikusita emakumearen sustapenerako beste gastu anitz batzuetarako 12.000 €, guk eskatu duguna ezabatzeko, ikusirik arlo eta gai honetan aurrekontua zein altua den.

Bestalde, gure herrian hasi dira krisiaren eraginak nabaritzen eta aurtengo aurrekontuetan, apirilko hilabetean aurkeztutako aurreproiektuan igoera oso eskas eta apenasekoa zuenez gastu sozialak, planteatu



genuen laguntza lerro berri bat zuzenduta familiei, ezen, agian, lehen aldiz, behartuta ikusten euren burua zerbitzu sozialetara jotzeko eta krisiaren aurretik euren oinarrizko beharrianak ase eta bete zitzaketan arren. Badira momentu hauetan, beharbada, euren enpleguak galdu dituzten familiak. Asistentzia Sozialeko diru-laguntzek igoera izan dute, pasatu direlako lehengo 40.000 €tik, oraingo orotarako 100.000 €ra. Laguntza horien lehen xede eta obejektua izango litzateke estaltzea gastuak hala nola diren elikadura, ostatu, oinarrizko fakturak ordaintzea, e.a.

Bestalde, Jon Karla Menoio Alkatearen aldetik konpromiso bat lortu dugu administrarietzako enplegu poltsa berri bat zabaltzeko. Nahi dugu gure adostasuna erakutsi ere biztanleengan antenek duten eragina aztertzeko partida bat txertatzearekin. Halaber, lortu egin da sartzea partida berri bat bai Eusko Jaurlaritzan bai Udaletxeko erregistroan, jadanik erregistratuta dauden herritarren partaidetzako elkarte bulego gastuak diruz laguntzeko. Garrantzitsua deritzogu gai hau, zeren Udaletxetik sustatzen ari da herritarren partaidetza eta lan hori egiteko Parte Hartuzi 17.000 €z diru-laguntzen zaionez, baderitzogu ezen baita laguntza eman behar zaiela ere halaxe jadanik eta dagoeneko erregistratuta dauden auzokoen elkarteei.

Azkenik, inbertsioen arloan, sozialistok eskatu dugu partida osoak txertatzeko auzo guztietan eta bakoitzean inbertitzeko, zenbateko txiki bat izan arren ere, eta horrela auzoetako asanbladetan jasotako eskarietako batzuk islatuta ikustea. Zehazki, gure taldearen ekimenez txertatu egin dira Lamuza Parkean bolatokien parean kokatuta dagoen Zuberoako haurrentzako parkearen konponketa-lanak eta Aretako Fabian Legorburu Eskolarako oinezkoentzako irispidearen konponketa.

Bukatzeko, gogoraraztea Gobernu Taldeari ezen urte onetan zehar metatuz joan izan den altxortegiko gerakina, gutxituz doala abiadura bizian eta momentu honetan Foru Aldundian zerga bilketa aurreikuspenak badirela % 20 gutxiagokoak; beraz, ezinbestekoa izango da beharrezko neurriak hartzen jarraitzea beheranzko joeradun 2010eko aurrekontu ekitaldiari aurre egiteko. Horrexegatik da, hain zuzen, Gobernu Taldeari eskatzen diogula datorren urterako aurkez diezazkigun aurrekontuak beraien onarpenerako indarrean dagoen foru araudian aurreikusita dagoen legez.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Gobernu Taldeari gure ekimenak edo gure emendakinak kontuan hartu izanagatik eta baita horiek tratatzeko orduan hartu gaituzten harrera eta giro onagatik.

JON KARLA MENOIO LLANO (Gaztelaniaz).- Ikusirik apur bat interbentzio ezberdinak, geuk ere helarazi nahi dugu gogoeta bat; agian, are halako globalagoa bizi dugun egoera ekonomikoa dena baino. Uste dugu, hala ere, aurkeztu aurrekontu proiektua ulertzen lagundu egingo digula, zerrendatzen joan izan diren partidak beraiek direnaz aparte eta baita kapitulu honetako azalpenean bertan ere partida horietan sartu ahal izatearen kalte barik. Ondo esan duzue, halaxe da, bagaude bere diru sarrera ahalmena murriztuta ikusi duen aurrekontu baten aurrean eta, beraz, bere barneko partida askotan moldaketa garrantzitsuan jasan behar izan duena eta nik, arean gehiago esango nuke, eta horregatik garrantzitsuagoa dena, aurrekontua egiteko orduan erabilitako filosofia beragatik. Bagaude munduko krisi ekonomikoko egoera batean eta bagaude baita krisia oso era gogorrean jasaten ari den probintzia baten ere. Dakigunez, munduan, edo azaldu izan zaigunez badago finantza krisi bat, kontsumo krisi bat sortzen ari dena eta, azken finean, horrek eragina izan du udaletan, batez ere gure tributu zuzen zein zeharkako zerga bilketan diru sarrera ahalmenaren gutxitzea eta horrek eragin argia izan du familien ekonomietan eta ehun enpresarialean eta lagunduta etorri da, aldi berean, udaletan dugun diru sarrera ahalmen eta gaitasunari oso gutxi lagundu dioten zerga neurri fiskalen ezarpenarekin batera.

Egoera Araban, argi dagoenez, ez da ezberdina. Bizi garen ekonomia globalizatueta munduko ekonomiaren egoeraren eragina arinago nabaritzen dira kanpo merkataritzan oinarrituta dauden edo atzerriari irekita, hau da, esportazioetan dauden ekonomietan. Eta horixe da, hain zuzen, arabar



ekonomiaren kasua. Arabar Barne Produktu Gordinean (BPG) esportazioek duten erlaziozko pisua oso altua da. % 45 inguru. Eta horrek eragiten ditu ondorio batzuk diru sarreretan edo zerga bilketan gutxitze hori sorrarazten dutenak. Badago eskariaren kontrakzio bat. Zehatzago izanik, 2009an zehar % 11n tasatuta dago. Horrek sortzen du kontrakzio bat industria jardueran eta familien kontsumoa gutxitzea. Gainera, Araban oso ukituta gaude beste herri batzuen ekonomi egoeratik, hain zuzen, Alemania, hori baita arabar ekoizpenaren destino nagusietariko bat eta aurten bere ekoizpena, 2008koarekiko, gutxituta ikusi duena % 5,6an. Eta lehen genioen legez, arabar ekonomiaren garapenean, esportazioen kapituluak badu giltzarritzko ukitua edo eragina arabar ekoizpen prozesuan. Gainera, badago adierazle sail bat, hala eskaintza, nola eskaria, azaleratu egiten duena bizi dugun krisi egoera. Barne produktu gordinaren beheranzko joera bat dago; 2009 urte honetarako dagoen ez-hazkundeko aurreikuspena % 2,4koa da; industria produkzioaren indizean, IPIn, jaitsiera metatuak gertatzen ari dira eta nabarmentzen ari dira soberako eran arabar ekonomiari oso era garrantzitsuan ukitu eta eragiten dioten bi sektore, alegia, automozioaren sektorea eta garraioaren sektorea. Baita ondo dakizuenez ere, horrexegatik ikusten du bere burua horren ukituta eta eraginda, hau da, badirelako bi sektore Arabako Lurralde Historikoan pisu espezifikoko garrantzitsua dutenak.

Eta gero, halaber, eskaintzaren adierazle legez, baliabideen murrizketan eragimen garrantzitsua izaten ari baita, badago bukatutako etxebizitzaren stockean gertatu den igoera edo gorakada, ezen berez sektore nahikoa zuhurra izan arren, bai baduela eragin garrantzitsua udal zerga bilketan ondorioak dakartzaten bi tributu edo zergetan, hala nola diren Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZ) eta ondare eskualdatzearen gaineko zerga.

Badaude bizi dugun krisi egoera hori erakutsi eta azaleratzen diguten eskariaren adierazle batzuk ere. Turismo ibilgailuen matrikulazioan jaitsiera edo gutxitze garrantzitsua egon da, zehazki % 30,5 eta etxebizitzarekin gertatu ohi den legez, horrek badu ondorio garrantzitsua hala BEZ zergan, lehen eskuko eskualdatze eta transmisioetan, nola ondare eskualdaketen gaineko zergan, bigarren eskuko eskualdatze eta inorenganazteetan eta segidako osteko eskualdatzeetan. Eta gainera, badakigu turismo ibilgailuen edo autoen sektoreak oso eragin handia duela arabar ekonomian. Ez alferrik baditugu bi enpresa traktoreak, hala nola diren Mercedes eta Michelin, horren mende baitaude. Jaitsiera garrantzitsua gertatu da ere inportazioetan, zehatzago % 52, zeinek adierazten duen barne kontsumoaren halako dinamismo galera bat. Horrek guztiak sorrarazten du indize txikiagoa lan kontratazioan, zein baita diru bilketaren erreferentzia ere udaletara iristen zaiguna. Horrek sortu du langabeziaren igoera; estatuko tasetatik urrun bagoaude ere, inguruabar hauetan nork bere zilborrari begira ezin daitekeela egon eta egia da langabeziaren igoera izan dela; jakina, enplegua erregulatzeko espediente gehiago egon dira eta egia bada ere badirudiela maiatza eta ekaina hilabetearen izandako kontratazioaren datua esperantzagarria dela, espero dezagun jarrai dezala apur bat ildo horretatik, zeren, argi dagoenez, badu bere garrantzia udalenzako geure zerga bilketa eta diru sarrerak biltzeko ahalmen eta gaitasunari dagokionean.

Gauza guzti horiek sortu dute, ondorio legez, aldundiaren diru sarreraren gutxitzea. Horren guzti horren eraginez, alegia, ekonomia jarduera txikiagoak, enpleguaren jaitsierak edo kontsumoa gutxitzeak sorrarazten du, hala, beraz, zergen diru bilketa gutxitzea, batez ere zeharkako zergetan eta merkatuan dagoen mesfidantza.

Hori esanda, esan beharra dago ere, baikor izateko datuak ere badaudela. Hala ere, argi dagoenez, egoera gogorra den arren, bai dela egia orain jotzen dela hitz egitera badaudela erna muin berdeak. Eta egia ere bada, arabar ekonomian nabaritzen direla, batzuk gauza oso propio gureekin eta beste batzuk globalizatuagoekin. Halaber, ekonomia globalean bizitzean, jakina, gauzak ondo doazenean, ondo doazkigu guztioi eta txarto doazenean, txarto doazkigu guztiori. BPGaren beheranzko joera bat dago, mota horretako arazoak konpontzen laguntzen duena, nahiz deflazioaren arriskua hor egon. Joera argia dago interes eta korrituen tipoak jaisteko, zeintzuek, argi dagoenez, laguntzen dioten bai ekonomia industrialari bai ekonomia familiarri. Petrolio upelaren prezioa badirudi badela oso kontrolatuta dagoen



preziosa dela eta, gero, badaude beste indize batzuk, inguruabar hauetan hobetzen doazenak. Euro zonan ekonomia konfiantzaren indizea positiboa izaten hasten ari da, Alemania legezko herri traktoreetako enpresari giroaren adierazleak ere hobetzen doaz eta hori garrantzitsua da, zeren lehen aipatu dugu alemaniar ekonomiak duen eragina arabar ekonomian eta, halaber, kontsumitzailearen konfiantza indizeetan hobari garrantzitsu batzuk ere badaudela, batez ere, azken boladan, jadanik segidako hilabeteetan eta bata bestearen atzetikoetan, positiboak izanik datozela eta hori ere garrantzitsua baita.

Lehen genioen krisi egoera honek sortu ere egin duena badela zergen arloko neurri (fiskal) zehatz eta jakin batzuk ezartzea, diru sarreretan gutxitzea ere suposatu dutenak. Zerga arloko neurriak ezarri ohi direnean, xedea eta objektua ez horrenbestean diru sarreraren gutxitzea lortzea, baizik eta, hain zuzen ere, ekonomia dinamizatzea. Baliteke guztietan asmatu ez izana, baina egia da zergaren baten indargabetzeak eta ezabatzeak, alegia, ondarearen gaineko zerga, zehazki, populazioaren gehiengoarengan duen ekonomia eragina txikia delako.

Nik uste laudioarren gehiengo handiari gutxi arduratzen digula ondarearen gaineko zergak, baina horrek ere badu bere eragina udal diru sarreraren kutxan. Egia ere bada keinu legez hobe litzatekeela mantentzea ezabatzea baino. Baina, agian, egon daitezke beste mota bateko neurri batzuk udal diru-kutxetan eragin handiagoa luketenak, eta halako alaitasunez hartu izan direnak eta, inondik inora, udaloi kontsultatu ere ez zaigu egin gai horretan, gu geu garenean horien xededun eta hartzailerik zuzenenak. Orain dela hiru edo lau urte, jarduera ekonomikoen gaineko zerga ezabatu zenean, ezabatu ere estatuko lege baten bitartez ezabatu baitzen, eta, bere oinarritzko udalaren eskuko zerga arloko diru bilketa duena edo badena zerga bat udalek kobratzen dutena. Udaletan izan zuen eragina garrantzitsua izan zen, eta, batez ere, egiaztatu egin denean lege horrek ez zuela amaitu ezabatzen jarduera ekonomikoen zerga lurralde nazionalean euren jarduera esparrua duten enpresa handi diren horientzako. Horren ondorioz, mota horretako neurrien eraginaren eta ukituaren portzentajerik handiena udalek jasan behar izan zuten.

Guri gustatu zitzaigukeen, udalen adin nagusitasuna aipatzen denean eta esaten zaigunean geu izan behar dugula gauza geure baliabide propioak kudeatzeko eta, gainera, guk geuk ere sinetsita badugu diskurtso hori, gustatuko litzaiguke baita nolabait udalen iritzia ere entzun dadila.

Iaz, pasa den urtean, indarrean ipini zen berraktibazio ekonomikorako 400 € horien neurria bera, deritzoguna ez dela progresista, errentarik baxuenei mesede egiten diela eta, hala ere, bai eduki duela kostu garrantzitsua toki erakundeotako ekonomietarako. PFEZ zergako atxikipen tauletako deflazioa bera, bada, hain zuzen ere, aurreko neurri horren ondorioa, efektu eta eragin berdinak eduki dituen, e.a.

Beste batzuetan ere sar gintezke; haur txekia bera, bada, baderitzogu merkatuan eragin hutsala duela, gure ustez ez da izaera progresista duen neurri bat ere eta, beharbada, baliabide horiek, jakina, objektu eta helburu horretara xederatu ahal direla ulertzen badugu ere, eman dakizkiela eta oinarri daitezkeela beste mota bateko neurrien gainean, hain zuzen ere, lortu nahi duten helburua lortzeko.

Hain zuzen ere, horrexegatik, agian udal legez exijitu behar dugu zerga arloko eta izaera fiskaleko neurriak hartzeko orduan, aurreikusitako erabaki horiek duten eragina lekuan lekuko ekonomietan, zeren funtsean baliabideen murrizketa krisi egoera baten ondorioz izateaz gain, badira, batez ere, izaera fiskaleko neurri batzuen ondoriozko egoeraren eragina, argi eta garbi, jasan eta ikusi behar izan baitugu. Era berean, baderitzogu izaera fiskaleko neurri horien ondorioz datozen baliabideen gutxitze horiek, mota horietako egoerak hobe eramateko eta arintzeko aparteko baliabideen ekarpenekin osatuta etorri behar direla. Eta, batez ere, eta oso garrantzitsua ere badena, deritzogu era zuzenean definitu behar dela udal eskumenen koadroa, horretarako finantzatze egokirik eratorrita.

Lehen esan du EAEk aurrekontu honek, funtsean, udaletxean ditugun obligazioei aurre egiten diela, udaletxeak kasu egin, arreta jarri eta atentzioa eman behar diegun obligazioak, alegia. Eta aipatu duzu hornidura merkatua, argi eta garbi, udal jarduera bat dena, eta udal honen eskumena ditugun biztanleen



zenbatekoaren arabera. Baina, baita aipatu duzu ere, ikastetxe publikoen mantentze-lana (B:0.0), eta hori ez da inondik inora udal eskumena, baizik eta horrela egiten ari delako sistematikoki; baina hori ez da udalaren eskumena. Orain dela urte askotatik hona eskatzen ari garena da, baldin eta udalaren eskumena dela irizten bazaio horri, bada, horren finantza diezagutela.

Hori esanda, ezinbestekoa da hitz egitea Laudioko aurrekontuaz, nahiz eta funtsean uste dudana egin izan diren interbentzioen multzoan, jadanik laburbildu dutela aurrekontuak berak duen iturburuaren funtza eta filosofia. Bada aurrekontu bat, bidenabar, azaltzen ari garen egoerak eragindakoa; FOFEL baliabide gutxiago ditugu; hor dago bueltatu behar dugun zenbatekoa ere, garrantzitsua dena eta aurrekontuan aurreikusita dagoena. Baina, guztiarekin ere, gure ustez oraindik orain bagara gai eta gauza bere pultsua duen aurrekontuen dokumentu bat aurkezteko. Hala, bada, badago inbertsioen kapitulua, jadanik horren mintzoa izan duzue, eta oinarritzen dena, funtsean, Hornidura Plazakoa legezko proiektu garrantzitsuetan eta, batez ere, auzoetara zuzenduta doazen eskaeren erantzuna, sostengatuta daudenak dugun auzo asanbladetakoa partaidetzako erremintan. Arlo sozialean, ez da behar estaldura sozialetako bat bera ere ez, aitzitik, partida batzuk handitu egin dira, batez ere, esaten zen legez, gerta litekeena denez, larrialdi sozialeko laguntzei aurre egiteko.

Gastu arruntak gutxitze garrantzitsua dauka; eman izan dit aditza esaten zela aurrekontu honetan gastu arrunta mantentzen dela; hori ez da egia; % 10 gutxitu da, zein baita zenbateko garrantzitsua. Halaber, beharbada gastu arruntaren mantentze horretan inplikatu beharko genuke geuk apurtxo bat geure burua, batez ere, falta egiten zaigun praktika onen eskuliburu horrekin. Zeren, nahiz eta eragin txikia dugun aurrekontuan, bada, egia da politikook ere zerbait egin beharko dugula. Baneukan hemen idatzita oharrean fotokopien gaia, aparkalekuaren erabilera, e.a., e.a. Edonola ere, egia ere bada, gastu arruntaren arloko asmoa dela jarraitzea prestatzen zerbitzu publikoak era eraginkor batean.

Diru-laguntzak, erabaki da ez ukitzea, ahalegin hori egiten jarraitzeko xedeaz eta objektuaz. Eta gero bai nahi genuen nabarmendu garrantzitsua iruditzen zaigun aspektu bat, batez ere, krisiaren testuinguruan deritzogu bereziki garrantzitsua dela, hala nola diren enplegua sustatzeko ditugun erreminta horiek. Dakizuenez dagoeneko sortuta dago Toki Garapenerako Agentzia, jadanik funtzionatzen hasita dagoena eta garrantzitsu deritzogun ekimen saila garatu duena. Batetik, berrikuntzaren foroa da; bertan aurkeztu zitzaizen udalerriko enpresa ezberdinei Eusko Jaurlaritzaren eskutik berrikuntzaren arloan praktikan ipintzen ari dena eta, gainera, berari eman nahi zaion bultzada da lortu nahi delako enpresak ez daitezen fosildu, baizik eta mugitzen ari diren sektorean enpresa lehiakorak izan daitezela. Bestalde, niri asko gustatu zitzaidan ere, ekintzaileen foroa, zein baita Lanbide Heziketa Eskolak burutu zuen ekimena, Lanbide Heziketa Eskolako ikasleekin eta bertan landu ziren Laudioko pertsona enpresari ezberdinek ekarritako eskarmentuak, hots, non azaltzen zieten Lanbide Heziketako Eskolako ikasleei beraiek arlo enpresarialean izan duten esperientzia eta arlo ekintzailean beraiek izan duten eskarmentua. Egia esan, zeharo interesgarria izan zela, zeren uste baitut baita gazteei ere eman egin behar zaiela alternatiba eta txanda edo, behintzat, aurkeztu egin behar zaien alternatiba da gazteon lan etorkizuna administrazioa izan daitekeenaz are harantzago dagoela, beharbada, lan postu gutiziatuena izan daitekeena, ala beste aldean enpresa handiak. Ikasle horiek ere eduki behar dituzte izan-gurak euren enpresa propioa muntatzeko, euren bizitza ekonomia propioa antolatu eta ezartzeko eta, batez ere, garrantzitsua deritzogu, ezagutzen ditugun, gure auzokideak diren Laudioko pertsonen esperientziak eta eskarmentuak ezagutzat joan daitezela eta beraien ahalegina, dedikazioa eta gaitasunarekin, gauza izan direnak beraien enpresak muntatzeko, horrek suposatzen duen aberastasuna sortzearekin udalerrirako.

Enplegua sustatzeko arlo honetan ere garrantzitsua deritzogu INEM - Toki Korporazioak hitzarmena egiten ari den apustu saila, interes orokorreko eta sozialeko obra-lan eta zerbitzuak egiteko lanik ez duten langile langabeak kontratatzeke xedearekin. Aurten, Araban 33 proiektu aurkeztu dira eta horietatik 4 Laudiokoak izan dira eta proiektu horiek funtsatzen direla baso eta larreen ingurumena hobetzean, landare espezie erasotzaileak ezabatzeke eta ustiapenen zerrenda egiteke, oztopo arkitektonikoan ezabatzeke eta



bide publikoak konpondu eta horitan mantentze-lanak egiteko; horrek suposatu du, bere osotasunean, 16 pertsona kontratatu egin direla.

Baita enplegu tailerra, Santa Luziara igotzeko bide berdea, 9 pertsonaren kontratazioa suposatu duena. Guztira, 25 pertsona langabetu eta izaera orokorreko eta izaera sozialeko proiektuetan, izan ere, garrantzitsua iruditzen baitzaigu hori mantentzea.

Baita enpleguaren sustapeneko arlo honetan ere, nabarmendu behar da Lanbide Heziketako Eskola egiten ari den lana; dakizueenez udalaren eskola bat da eta bertan eskaintzen dira lanbide prestakuntzako eta prestakuntza jarraituko ikastaroak, bereziki garrantzitsuak direnak krisi garaietan, zeren ahalbideratzen baitu beste alternatiba batzuk ematea, batez ere, euren laneko merkatuan sartzekoan zailtasunik handienak dituztenei; prestakuntza jarraituko eta lanbidezko izaera hori duen prestakuntza hori sortzen duten ikastaroak mantentzearen inertzia berdinarekin eutsi ohi dira. Zehazki, hemen ditut datu batzuk; ez zaituztet nekaraziko; 2009 urtean 15 ikastaro eman dira eta 221 ikasle izan dira guztira.

Halaber, aurrekontuari dagokionez, badago proposamen bat soldatak eta dietak izozteko; gu ez gatoz bat proposamen horrekin, batez ere, ez iruditzen zaigulako ausardia gutxikoa, alabaina, egia ere bada, ezen planteamendua egin deneko negoziazioan, onartu egin dugula eta deritzogu, uste dugu I Kapituluako arazoa ez dela klase politikoaren ordainketak eta are gutxiago zinegotzienak, baina uste dugu funtsatu egin dela gizartearen aurrean politikook eduki behar omen dugun eredu zko portaera horretan eta, jakina, filosofia hori bai partekatzen dugula.

Baldin eta eredu zko portaera soldatak eta dietak izoztean badatza eta gero, batez ere, geuk onartu eta bultzatzen baditugu, nahiz eta iritzi ez dela neurri bat egokien deritzoguna eta ez dela sostengatzen apur bat udal honetako I. kapituluak eta mota honetako aurrekontu proiektuek eduki dezaketen analisisian eta xedean-

Zein da etorkizuna? Etorkizuna, argi dagoenez, korapilatsua da; egia da korapilatsua dela, nik uste, behintzat, jadanik hori esaka ibili garela. Ekonomiaren egoera zaila da, baina bai uste dugula udalak baduela muskulua eta giharra horri aurre egiteko. Aipatu da diru sarreren kapitulua eta diru hondar eta soberakinen kapitulua, eta lehen esan dugu nor bere zilborrari soilik begiratzea ez dela ona; nik uste ez dela ona ez bizitzan, ez politikan ez inongo lekutan ere ez. Baina gaur egun diru soberakina edukitzea bada benetako luxua. Badaude beste udal batzuk, are hemen etsenplu legez ipini izan direnak, I. eta II. Kapituluak estaltzeko aurrekontu proiektua prestatu ahal izateko zorpetzeari heldu behar diotenak. Hori bai egoera dramatikoak. Gu bagara udal bat kontuak saneatuta dauzkaguna; eta, hori, guztion merezimendua da, jakina. Horregatik pozik gaude eta aurkeztu ahal dugu kontuak saneatuta dauzkan udal bat. Zorrik ez duen udala daukagu eta, beraz, aurkezten zaizkigun erroka handiei aurre egin ahal dieguna. Gainera, badugu udal bat likideziaz eta hori ere garrantzitsua da. Baina badugu udal bat, baita bere mehatxuak ere badituena, benetan, badaudela mehatxuak, eta horiekiko prestatuta egon beharra dugu. Horietako bat komentatu da jada, hau da, batez ere, diru sarreren murrizketa gero eta handiagoa izatea eta baditugu beste batzuk herri izaerakoak, herri izaera hutsekoak direnak. Eta bururatzen zait Lanbide Heziketa Eskola aurreko aparkalekura betearazi egin behar den Auzitegi Goreneko Sententzia; hori mehatxu bat da, nabarmena, etorriko dena. Zeren, lehenago edo beranduago, etorriko da eta iritsiko da momenturik txarrean. Mota horretako berriak beti dira txarrak eta nik uste osoa dut denbora gutxi barru etorriko zaigula, zeren denbora luzea daraman sententzia horrek Auzitegi Goreneko foroan eta, izatez, espero dezagun udalaren interesentzako ahal denik eta onuragarriena izatea, baina egia da mehatxua dela eta etorriko denean, ikusi egin beharko dugu nolako zoria dakarren.

Egin dituzuen ekarpen eta planteamenduei dagokienez, nik uste badela banako gogoeta hemengo gutariko bakoitzak ordezkatzeko dugunaz. Aurrekontu hau uztaile hilabetean aurkezten dela aipatu dela-eta, soilik. Egia da berandu aurkeztu dela, baina negoziazio eta lan garrantzitsu baten fruitu izan da. Apirila



hilabetean aurkeztuta dago eta orain izan da Osokora dakarguna bere onarpenerako. Bai dela egia belu aurkeztu izanarena, hori ez izanik inolako bertuterik, zuzendu beharreko zeozer baizik, baina bere abantailak ere baditu. Askoz ere lehenago aurrekontua onartuta eduki duen jendea, orain ari da zuzenketak egiten. Gu egin ahal izaten ari gara ikuspegi ekonomikoarekin, batez ere, errealitatean gehiago funtsatuta eta errealismo handiagoarekin.

EAEREN planteamendua ezin dugu onartu, non esaten den bakarra den aste bat soilik irabazi egin dela pleno arruntari buruz. Guztiaren gaineratik, hau gutxi baloratzen bada, beharbada atzera egom eta jo beharko dugu ogasun batzordera, non jadanik adierazi genuen pasa den asterako ekarri nahi izan genukeela, eta horrela bi aste irabaziko genukeen. Egia ere bada EAERen bozeramaileak ezin zuela egon eta garrantzitsua iruditzen zitzaigun, gutxienez ogasunaren batzordeko bozeramaileak plenoan egon gitezela, eta horregatik ekarri da aste honetan.

Gero, iruditu zait zuri ulertzea ezen ekainako hilabetean aurkeztuta ohiz kanpoko izaerarekin zinegotzi batzuei ukatzen zaiela eskubidea pleno honetara bertaratzeko. Hori esan baduzu, dudarik gabe, nik uste dut hori badela apur bat heavya. Zeren hemen ez baitzaio inori pleno honetara bertaratzeko eskubiderik ukatzen eta bertaratu ez denak azaldu behar izango du zergatik ez den etorri. Ikusten dut hemen bi zinegotzi baino ez direla falta eta alderdi popularrak hausnarketa guztiz desberdin bat egin du. Eta falta den EAEReko zinegotziak azaldu behar izango du non egon den. Argi dago hemen planteamenduak beste bat izan behar duela, eta dudarik gabe plena zabalik dago edozein unetan osoko bilkura egiteko, eta unerik egokienean ere, eta etor daitekeena badator eta etorri ezin dena ez dator. Nik ulertzen dut gaur etorri ez direnak badela oportetean daudelako. Beraz, ez dela osoko bilkura honen eguna eta ordua jarri ere egin, pertsona zehatz eta jakin hori egon ez dadin berariaz bilatu den unean. Hori badakizue ez dela horrela izan. Ez dagoena, oportetean dago; izan ere, uztailako hilabetea baita oporteteko eta batzuk oportet hartzen ditugu; oso ondo iruditzen zait, baina uztailan udal honek jarraitzen du funtzionatzen.

Ez da lehen aldia uztailan ekartzen dena aurrekontuen proiektu bat. Zuek gobernatzen zenutenean, hori ere egiten zenuten eta, hala ere, une haietan, bai ibiltzen zinetela jendea oportetean non zegoen bila, ez zeneukaten gehiengo irabazteko. Izan ere, hori sufritu dugu gainerako alderdi politikook. Ez, ez, halaxe da. Nik ulertzen dut barrea eragiteko modukoa izatea, baina halaxe izan da.

